

Irudigune – irudi klinikoak hartzeko aplikazioa



Osakidetza

HEDAPENERAKO ESKULIBURUA

Aldaketaren kontrol-orria

Izenburua	Hedapenerako eskuliburua		
Entregatzekoa	Hedapenerako eskuliburua		
Fitxategiaren izena	Hedapen pilotuaren eskuliburua		
Egilea	Joseba Albizua		
Bertsioa/Edizioa	<v01r01>	Bertsio-data	2023/10/09
Nork onartua		Onarpen-data:	UUUU/HH/EE
		Orrialdeak guztira	15

Aldaketen erregistroa

Bertsioa	Aldaketaren arrazoia	Aldaketaren arduraduna	Eremua	Aldaketaren arrazoia
<v01r00>	Hasierako bertsioa	Joseba Albizua		2023/10/09

Aurkibidea

Edukia

Aldaketaren kontrol-orria	1
Aurkibidea.....	2
Sarrera.....	3
Hedapenerako plana.....	4
1. BEHAR DIREN APP-AK DESKARGATZEA	4
1.1. Microsoft Authenticator	4
1.2. Deskargatu Irudigune app-a	5
1.3. Irudiguneren app-rako lehen sarbidea	6

Sarrera

Dokumentu honen helburua da deskribatzea zer urrats egin behar diren Irudigune aplikazioa erabiltzen hasteko, irudi klinikoak gailu mugikor pertsonaletatik hartzeko.

Hedapenerako plana

1. BEHAR DIREN APP-AK DESKARGATZEA

1.1. Microsoft Authenticator

Irudiguneren app-a mugikor pertsonaletan erabili ahal izateko, beste autentifikazio-faktore bat behar da. Horregatik, egin beharreko lehen urratsa da Microsoft authenticatorren app-a deskargatzea eta app hori konfiguratzea bi urratseko segurtasun-faktore gisa erabiltzeko. App hori Office365erako sarbidea izateko erabiltzen den bera da, eta pixkanaka zabalduko da Osakidetza osoan.

Jarraian, dokumentazioaren esteka bat dago, app-a nola deskargatu eta konfiguratu azaltzen duena.

[Microsoft Authenticator aplikazioa konfiguratzea.pdf](#)

1.2. Deskargatu Irudigune app-a

Aplikazioa gure sistema eragile mugikorrari dagokion dendan bilatuko dugu (PlayStore, Android erabiltzen badugu, edo AppStore, IOS erabiltzen badugu).

Edo, bestela, QR hau eskaneatu dezakegu, eta, bertatik, zuzenean sar gaitezke store-ra.




1.3. Irudiguneren app-rako lehen sarbidea


Irudiguneren ikonoa sakatu ondoren, sarbide-pantaila agertuko da.



Bertan «sartu» sakatzean, Azure ADren pantailatan sartuko gara, eta erabiltzaileak bere helbide elektronikoko korporatiboa sartu behar du lehenik.



Ondoren, mahai gaineko PCan saioa irekitzeko erabiltzen duzun pasahitza .



Gero, erabiltzaileari hurrengo pantaila agertuko zaio eta Microsoft authenticator ireki beharko du, saio-hasiera baliozkotzeko.



Saioa baliozkotu ondoren, aplikazioak balidatuko du sartzen den erabiltzaileak profil sanitario bat duela Osakidetzan (medikuak eta erizaintzako langileak, EUD). Ekintza horrek denbora bat iraun dezake.




Erabiltzailea sartzen den lehen aldian erabilera-baldintzak onartzeko eskatuko zaio.




Horrez gain, irudi dermatologikoak eskuratzeko gida erakutsiko zaio, etorkizunean algoritmo baten bidez azter dezan.



Azkenik, pantaila bat agertuko da, OG kontsultatzeko eskaerari lotutako argazki-saio bat hasteko.



Azpimarratu behar da mugikorrean sartzen den profesionalak bat etorri behar duela OGPN konektatutako profesionalarekin; hots, kontsulta espezializatua eskatzen duen horrekin. Horrela, OGPNen **"Probak eta kontsultak eskatzea"** gadgetetik QR bat margotuko da. Kontsulta-eskaerari argazkiak gehitzeko, profesionalak QR ikonoa sakatu beharko du.



Prueba Segundo Etxebarri Prueba /
Emakumea 58 urte IKK: 2162876 2019/10/24
Egonaldi-egunak: 1496 Ohe-zk.: ZVC10

Kontsulten eskaera - Prueba Segundo Etxebarri, PRUEBA AAACIENTE PRUE

Kontsultak
Kontsulta-mota
☐ Lehenengoa ☐ Hurrengoa ☐ Ez bertaratzekoa ☐ Enfermería EU_
Zerbitzua Zentroa Atala Egoera
Hitzordua eskatzeke

Prestazioa

ESKATZEKO ARRAZIOIA

Lehentasuna: ☒ Ohikoa ☐ Lehentasunezkoa ☐ Urgentea
Hitzordua zer egunetan nahi den Hautatu eguna Hitzordurako oharra

Argibide gehiago

Alertak
ALERTAS :
Beste Batzuk (ANTIKOAGULAZIOA):
ALERGIAS :
Alergiak: ☒ Eranskinak

Pazienteari buruzko oharra

Nire Zerbitzua ☐ Nire Gertakaria ☐ Ikusi prozesua

Horrela, pantailan eskaera horri lotutako QRa agertuko da

Prueba Segundo Etxebarri Prueba /
Emakumea 58 urte IKK: 2162876 2019/10/24
Egonaldi-egunak: 1496 Ohe-zk.: ZVC10

Kontsulten eskaera - Prueba Segundo Etxebarri, PRUEBA AAACIENTE PRUE

Kontsultak
Kontsulta-mota
☐ Lehenengoa ☐ Hurrengoa ☐ Ez bertaratzekoa ☐ Enfermería EU_
Zerbitzua Zentroa Atala Egoera
Hitzordua eskatzeke

Prestazioa

ESKATZEKO ARRAZIOIA

Lehentasuna: ☒ Ohikoa ☐ Lehentasunezkoa ☐ Urgentea
Hitzordua zer egunetan nahi den Hautatu eguna Hitzordurako oharra

Argibide gehiago


Alertak
ALERTAS :
Beste Batzuk (ANTIKOAGULAZIOA):
ALERGIAS :
Alergiak: ☒ Eranskinak

Pazienteari buruzko oharra


QR Sesión Fotográfica

Nire Zerbitzua ☐ Nire Gertakaria ☐ Ikusi prozesua

Profesionalak QR Osabide Global eskaneatzeko botoia sakatu beharko du mugikorrean, eta PCaren pantailan agertzen den kodea irakurri, pazientearen argazki-saioa hasteko.




Lehenengo aldian, app-ak kamera erabiltzeko baimenak eskatuko ditu.




Eta profesionalak egoki iritzitako argazkiak egin ahal izango ditu, "egin argazkia" botoia sakatuz.




Esan argazki horiek ez direla inoiz gailu mugikorrean biltegitratuko, baizik eta Osakidetza hodeira igoko direla. Estaldura-arazoak antzemanaz gero, mugikorrean arazo horren berri emango zaio profesionalari.





Argazkiak zirriborro-egoeran dauden bitartean, ez dira ikusgai egongo OG-OGPtik. Kontsulta-eskaeran ikusi ahal izateko, lehenik eta behin argazki-saioa itxi behar da, "Amaitu argazki-saioa" botoiaren bidez.






Une horretan, argazkiak eskaerarekin batera agertuko dira.



Argazkiek banakako iruzkinak izan ditzakete, eta iruzkin horiek gailu mugikorretik zein OGPn kontsulta egiteko eskaeratik idatzi ahal izango dira. Mugikorretik oharrak ikusteko, klik bikoitza egin argazkiaren gainean. Jatorriko argazkia kargatuko da eta iruzkinak gehitu ahal izango dira.




Horrez gain, argazkiak "Markatu irudia" gadgetetik ere kontsultatu ahal izango dira, pazientearenak diren irudi gisa.



Azkenik, aplikazioa erabiltzeari utzi nahi zaionean, bi urratsetan itxi behar da gailuko saioa. Lehenik eta behin, Irudiguneren app-ean, adierazi behar da saioa itxi nahi dela.

1



Eta bigarren urrats batean, Microsoften pantailan, konektatzeko erabili zen konturako saio hori ixten dela berretsi behar da.

